

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bermeoko Udala****2025. urtean Santa Eufemia eguneko baserri giroko azokako postuak jartzeko baimena.**

2025eko uztailaren 17ko 2025/4664 zenbakidun Alkatetza Dekretuz, 2025. urteko Santa Eufemia azokako postuen oinarriak, eranskinak eta deialdia zabaltzea onartu dira, 2025eko irailaren 16an Bermeoko Lameran ospatuko den baserri giroko azokan ondare publikoaren erabilera baimentzeko.

Xedea

Santa Eufemia eguneko baserritarren azokako postuak jartzeko oinarriak eta eranskinak onartzea eta deialdia zabaltzea. Elikagaiak saldu ahal izango dira. Ez da artisauen azoka bat.

Iraupena

Egun bat, 2025eko irailaren 16a.

Oinarriak aztertzeko lekua eta epea

Oinarriak eta eranskinak Bermeoko Udaleko web orrian egongo dira ikusgai, eskabideak aurkezteko azken egunera arte.

Eskabideak aurkezteko tokia eta epea

Eskatzaile guztiek, parte hartu ahal izateko, Alaiki enpresan eman beharko dute izena, abuztuaren 1etik 29ko 14:00ak arte. Izena emateko, eransten diren eskabidea eta zinpeko aitorpena sinatuta bete beharko dituzte eta posta elektronikoz edo posta arruntez aurkeztu.

Emaileraz

azoka@alaiki.eus

Posta arrunta

Alaiki Zerbitzu Gizakulturalak.

Igeltzera enpresa parkea - Barrikako bidea, 2 - D4 pabilioia.

48610 - Urduliz (Bizkaia).

Eskabideen esleipena

2025eko irailaren 1ean, Bermeoko Gizarte eta Kultura Etxean.

Bermeon, 2025eko uztailaren 18an. — Alkatea, Nadia Nemeh Shomaly